Tercero.- La impartición material de las jornadas/charlas/actividades didácticas/asesoramiento/ para la que se contrata a aquella/s persona/s es uno de los elementos integrantes de la actividad propuesta, pero no el único. Así, otros aspectos tales como: idea, diseño de la actividad, organización, puesta en conocimiento de las potenciales personas destinatarias, selección de éstas, seguimiento de la actividad, resolución de problemas que surjan y evaluación final, son tareas y funciones asumidas y desarrolladas directamente por esta entidad, a través de sus personas socias, y que comportan un coste económico no reflejado en el presupuesto de gastos de la actividad, por ser una de las aportaciones de esta entidad.

Lo que se expone a los efectos de que el Ayuntamiento de Sestao considere que las actividades propuestas por esta entidad son conformes a lo previsto en la Base Cuarta, apartados 1 y 2, de las que regulan la precitada convocatoria de subvenciones.

En Sestao, a de de2015.

Fdo.- _____

2º.- Aprobar el gasto de 11.330 euros para la concesión de las subvenciones a que se refiere la convocatoria aprobada en el punto primero del presente acuerdo.

3º.- Tramítense la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia, y notifíquese al Sr. Interventor Municipal”.

Sestao, a 25 de Marzo de 2015.
HIRUGARREN ALKATEORDEA, GIZARTEKINTZA ETA PERTSONA ADINDUAK ARLOKO ORDENZKARIA,
LA TERCERA TENIENTE DE ALCALDE, DELEGADA DE ACCIÓN SOCIAL, PERSONAS MAYORES, IGUALDAD Y
COOPERACIÓN AL DESARROLLO,

Fdo.: Florentina Núñez López.



SESTAOKO UDALA

SESTAOKO UDALEKO HIRUGARREN ALKATEORDEAK, GIZARTE EKINTZA, ADINEKOAK, BERDINTASUNA ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA ARLOKO ORDEZKARIAK 2015EKO MARTXOAREN 13KO DATAKO DEKRETU BIDEZ, DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTU DU, 2015. EKITALDIAN ZEHAR EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZERA ZUZENDUTAKO JARDUERAK BETETZEKO.

Sestaoko Udalaren dirulaguntzak izapidetu eta emateko Udal Araudian ezarritakoaren arabera, eta Berdintasuna, Inmigrazioa eta Ez Diskriminazioa Informazio Batzordeak igorritako proposamen loteslearen arabera, 2014ko martxoaren 12ko Alkate-Lehendakariaren Dekretuaren bidez egindako alkateordetzearen babesean (2014ko martxoaren 20 datan, Bizkaiko Aldizkari Ofizilean, 55. zenbakian, argitaratua) eta Alkate-Lehendakariaren 2014ko martxoaren 12 eta 18ko Dekretuen bidez egindako eskuordetzen babesean (2014ko martxoaren 20 eta 26ko datarekin, hurrenez hurren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 55 eta 59. zenbakietan argitaratuak), espediente honen ebazpena Gizarte Ekintza, Adinekoak, Berdintasuna Eta Garapenerako Lankidetzaren Arloko Hirugarren Alkateordearena izanik, erabaki dut:

1.- 2015. ekitaldian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan jarduerak garatzeko Sestaoko Udalak ematen dituen diru-laguntza ekonomikoei buruzko deialdi publikoa onartzea, Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzak (107. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2006ko ekainaren 6koan, argitaratutakoak) eta 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak, xedatutakoari jarraiki, horiek aplikagarriak badira. Gainera, honako oinarriak kontuan hartuko dira:

LEHENENGOA. HELBURUA ETA XEDEA.

1.- Diru-laguntza deialdi honen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera bideratutako programak eta jarduerak sustatzea eta garatzea da.

Deialdi honen xedea da soilik diru-laguntzagai diren jarduerak egiten dituzten elkarteei ekonomikoki laguntzea, dirulaguntzak emanez; beraz, ez da bere helburua jarduera horiek egiteko udal-jabetzako lokalak, materialak edo azpiegiturak uztea.

2.- Programak edo jarduerak irabazi-asmorik gabe egin beharko dira, garapen-esparrua Sestaoko udalerrira izango da eta onuradunek Sestaoko udalerrian erroldatutako pertsonak izan beharko dute. Gainera, 2015. ekitaldian garatu beharko dira.

BIGARRENA: DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN EGITARAUAK ETA JARDUERAK.

Gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak gainditzeko helburuz garatzen diren programa eta jarduerak jaso ahal izango dute diru-laguntza, hain zuzen ere segidan zehazten direnak eta Sestaoko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Planaren lehentasun eta helburuen barruan daudenak, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Planarekin bat. Diruz lagunduko diren jarduerak eta programak honako hauek dira:



- a) Sestaoko eremu guztietan gizonen eta emakueen arteko berdintasuna benetan eta era eraginkorrean sustatzen dituzten jarduerak eta programak.
- b) Ikuspegi feminista batetik edo genero ikuspegitik hartuta bereziki diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen garapen integrala eta ahalduntzea sustatzen duten jarduerak eta programak.
- c) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko asoziazionismoa sustatzera bideratutako jarduerak eta programak.
- d) Emakumeek bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalerako eremu guztietan parte-hartzea sustatzera bideratutako jarduerak edota programak, batez ere kontutan hartuta bereizketa anitz edota gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden emakumeak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeriaren borrokan herritarren sentsibilizazioa, formakuntza eta parte-hartzea sustatuko duten jarduerak.
- f) Emakumeen eskubideen formakuntza, aitorpena eta zabalkundea sustatzeko jarduerak.
- g) Emakumeen, emakumeen taldeen eta mugimendu feministen ikerketa, errekonozimendua eta historia berreskuratzeko jarduerak, eta baita emakumeen erreferentzia eta genealogia sustatzen dutenak ere.
- h) Gizonen berdintasunaren aldeko formakuntza, parte-hartzea eta konpromisoa sustatzen dituzten jarduerak.
- i)

HIRUGARRENA. BEHARKIZUNAK.

1.- Proposatutako jarduerak diru-laguntza jasotzeko hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Deialdi honen bigarren baldintzak aurrez ikusitako jardueraren batekin bat etortzea.
- b) Udalaren interes publikoa lortzen laguntzea, Bigarren oinarrian zehaztutako eremuetan Sestaoko Udalaren esku hartzea osatuz, Sestaoko Udalaren berdintasun arloko politikaren ildoarekin bat.
- c) Jarduera teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izatea.

2.- Azaldutako baldintza guztiak betetzen ez badira, jarduerak ez du diru-laguntzarik jasoko.

3.- Espresuki ezartzen da inola ere ez dutela diru-laguntzarik izango:

- g) Aisiari begira bakarrik bideratzen diren jarduerak eta programak.
- h) Helburuen artean modu argi batean gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna gainditzea jasotzen ez dituzten jarduerak.
- i) Edukietan eta helburuetan bestelako udal diru-laguntza deialdirekin bat egiten duten jarduerak eta programak.
- j) Elkarteei modu partikularrean garatzen dituzten jarduerak eta programak.
- k) Diseinua, metodologia, erabiliko diren baliebidetako edota hartzaileak kontuan hartuta, Sestaoko Udalak deialdi honetan planteatzen diren helburuak lortuko ez dituzten jarduerak.
- l) Herritarren artean ustez izango duten inpaktua kontuan hartuta, Sestaoko Udalaren iritziak kostu ekonomiko handia duten jarduerak eta programak.

LAUGARRENA. EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK.

1.- Diru-laguntzen ondorioetarako, onartuko dira diru-laguntzagai diren jarduerak burutzeko beharrezko diren gastu guztiak, honako gastu hauek salbu: ondasun higiezinak, altzariak eta ekipamendu-teknikoa



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

erosteko gastua. Ezta diru-laguntza jasoko duen elkarteko langileen soldata, gizarte-segurantzaren gastuak eta bestelako gastuak, proposatzen diren jarduera horien bidez diru-laguntzaren entitate onuradunaren kide edo bolondresen auto-enplegua finantzatu nahi dela ikusten denean.

2.- Diru-laguntza jasoko duten jardueren azpikontratazio-gastuak onartuko dira honako baldintzetan:

a) Pertsona edo erakunde onuradunak azpikontratatu egingo du diru-laguntzaren xedea osatzen duen jarduera osoa edo horren zati bat hirugarrenekin hitzartzen duenean. Ez da azpi-kontrataziotzat joko onuradun pertsonak edo entitateak berak diruz lagundutako jarduera burutzeko beharrezko dituen zerbitzuak edo ondasunak kontratatzea,

Halaber, ez da azpikontrataziotzat joko, egin nahi den jardueraren arloan pertsona adituak eta espezialistak kontratatzea, diru-laguntzaren erakunde onuradunak ez duenean bazkiderik edo organigraman kiderik gauzatzeko gaitasun edo eskuragarritasun egokiarekin, betiere kontratatutako pertsonak erakundearen bazkideak edo boluntarioak ez direnean eta kontratatzen den pertsonak egiteko jarduera proposatutako jardueren beste elementu bat denean, baina ez bakarria. Ildo horri jarraiki, bestelako alderdiak, besteak beste, ideia, jarduera diseinatzea, antolatzea, hartzaile potentzialei jakinaraztea, horiek hautatzea, jarduerara jarraitzea, sortzen diren arazoak ebaztea eta azken ebaluazioa, diru-laguntzaren erakunde onuradunak zuzenean onartu eta garatu beharko ditu pertsona bazkide edo organigramako kideekin; antolaketa-alderdi horiek kostu ekonomiko bat sortzen dute eta ez daude islatuak jardueraren gastuei dagokien aurrekontuan, diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiten duen ekarpen bat baita. Kasu horietan, diru-laguntza eskatzen duen entitateak, deialdi honen seigarren Oinarrian adierazten den dokumentazioarekin batera, behar bezala beteta aurkeztu beharko du deialdi honen IV. Eranskina.

b) Gehienez ere, diruz lagundutako jarduera edo proiektuaren kostu guztiaren 100eko 50 azpikontratatu ahal izango da.

3.- Orokorrean, emango diren diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa diruz lagundutako jarduera edo programaren kostuaren 100eko 50 izango da eta ez du inolaz ere diru-laguntzaren zenbatekoak eragingo diru-sarrerak gastuak baino gehiago izatea.

4.- Hala ere, delako jarduera edo programaren 100eko 75erainoko diru-laguntza eman dakieke, diru-laguntzak emateko organo eskudunaren iritziz, lehentasunezko izaera estrategikoa badute eta udal errealitaari begira garrantzitsua bada, ebazpenean modu horretan xedatuz gero.

5.- Inolako erakunderi ez zaio 3.000 eurotik gorako diru-laguntzarik emango, Sestaoko Udalak diruz lagunduta gauzatzen dituen jarduera bategatik dela edota jarduera multzoagatik dela.

6.- Nolanahi ere, aurreko irizpideak aplikatuta, eman beharreko diru-laguntza erakundeak eskatutakoa baino handiagoa gertatuko balitz, emango den diru-laguntza erakundeak eskatu duena izango da gehienez ere.

7.- Diru-laguntzaren zenbateko guztia estaltzeko aurrekontu-eskuragarritasuna baino handiagoa bada, diru-laguntza guztiak ehuneko berdinean murriztuko dira zenbateko guztia dagoen aurrekontu-kontsignazioarekin estaltzeko.

8.- Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak, isolatua edo beste diru-laguntzekin, laguntzekin edo diru-sarrera ekonomikoekin elkartuta, ez du inoiz ere erakunde onuradunak garatu behar duen jardueraren kostua gaindituko. Diruaren jatorria beste Administrazioa edo erakunde publikoa ala pribatua izan daiteke. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertu ondoren, gastuen gainean diru-sarrerak handiagoak balira, Sestaoko Udalak diru-laguntza gehiegiz izan den diru-sarreraren arabera murriztuko da.

Bi Herri Erakundek edo gehiagok diru-laguntzak ematen duten kasuetan, eta atal honetan xedatzen den dirua itzultzeko baldintza jarraitzen badute, Erakunde horiek emandako diru-laguntzari dagozkion zenbatekoen banaketa proportzionala egingo da dirua itzultzeko.



BOSGARRENA: ERAKUNDE ONURADUNAK.

1. Baldintza hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izan daiteke edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko nahiz pribatu, irabazi-asmorik ez dutenak eta deialdi honetan adierazitako jarduera eta proiektuak egiten dituztenak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Legez eratuak egongo dira eta Elkarrekin edo Fundazioek, gainera, Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin Erregistro Orokorrean edo Erregistro Bereziatan inskribatuak egon beharko dute. Halaber, legez eraturako pertsona juridikoen parte har dezakete, nahiz eta Erregistroetan inskribatuak ez egon, Estatuko Administrazio Orokorreko edo Autonomia Erkidegoetako bestelako bulegoetan inskribatuak badaude eta egoitza, helbidea edo sozietatearen ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoan badute. Nolanahi ere, Erregistro Publikoak inskribapenak gutxienez diru-laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik urtebeteko antzintasuna izan beharko du.

b) Sestaoko Herritarren Entitateen Udala Erregistroan izena emanda izatea. Baldintza hau beteta izatea ofizioz egiaztatuko du Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Emakumea Atalak.

c) Pertsona juridikoen estatutuetan berariaz adierazi beharko da irabazi-asmorik ez dutela.

d) Pertsona juridikoen sozietatearen egoitza Sestaoko udalerrian izango dute.

e) Sestaoko Udalaren laguntzen izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduran murgilduta ez egotea; era berean, 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrek 13. artikuluan xedatutako debekurik ez izatea; eta sexuarengatik diskriminazioa egitearen ondorioz administrazioak edo zigor-eremuak zigortuak ez izatea, ezta diru-laguntzak jasotzeko deialdiak ez aurkezteko debekura zigortua ere, 4/2005 Euskal Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako denak ezarritakoaren arabera; eta azkenik, Sestaoko Udalarik eskatzen dion diru-laguntzarekin jarduera garatzeko orduan irabazi-asmorik ez izatea.

f) Sestaoko Udalak lehendik emandako dirulaguntzen justifikazioak eguneratuak izatea. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango pertsona edo erakundeari Udalaren aurreko diru-laguntzarik justifikatzeko badu eta deialdiari dagokion eskabideak aurkezteko epearen amaieran justifikatzeko epea amaituta badago.

g) Eskubide publikoen zerga-betebeharrekin eta gizarte-segurantzaren betebeharrekin eguneratuta egotea.

SEIGARRENA. DOKUMENTAZIOA

1.- Diru-laguntzaren eskaerak eskabide-eredu ofizialean aurkeztuko dira eta deialdi honen I. eranskinean agertzen da. Behar bezala osatu beharko da eta interesatuei Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza, Hirugarren Adin eta Emakumezkoaren Saileko bulegoetan (Sestaoko udalerriko Alameda Las Llanas kaleko 4. zenbakian, Castañós eraikineko bigarren solairuan) entregatuko zaie.

2.- Eskabidearekin batera hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Identifikazio Fiskalaren Kodeari dagokion fitxaren fotokopia; estatutuen fotokopia; diru-laguntzaren eskabidea sinatzen duen pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta diru-laguntzen deialdirako eskatzailearen izenean eta horri ordezkatzeko jardun dezakeela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia; Elkarrekin edo Fundazioen kasuan, aurrekoaz gain, Erregistro Publikoan inskribatuak egotearen fotokopia erantsiko dute, deialdi honen Bosgarren Oinarriko a) atalean aurrez ikusitakoarekin bat.

b) Behar bezala osatutako hartzekodunaren fitxa, dagokion diru-laguntza ordaintzeko (deialdi honen III. Eranskinean zehaztutako ereduarekin bat).



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta pertsona eskatzaileak helbide fiskala duen Herri Ogasunaren ziurtagiriak, erakunde horiek betebeharrekin eguneratuak daudela adierazten dutenak. Ziurtagiriak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengoak izango dira.

Era berean, erakunde eskatzaileak Sestaoko Udalarekin betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Ziurtagiria espedienteari erantsiko dio ofizioz Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Emakumezkoaren Atalak.

Eskatzaileak zuzenbide publikoko zerga-obligazioez salbuetsiak dauden pertsona juridikoak badira, salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

d) Diru-laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea Sestaoko Udalaren laguntzen izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduran murgilduta ez dagoela adierazten duen Aitorpena; era berean, 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak 13. artikuluan xedatutako debekurik ez duela; eta sexuarengatik diskriminazioa egitearen ondorioz administrazioak edo zigor-eremuak zigortuak ez daudela, ezta diru-laguntzak jasotzeko deialdietara ez aurkezteko debekura zigortua ere, 4/2005 Euskal Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako denak ezarritakoaren arabera; eta azkenik, Sestaoko Udalarik eskatzen dion diru-laguntzarekin jarduera garatzeko orduan irabazi-asmorik ez izatea. (Deialdi honen II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera)

e) Burutzea proposatutako jarduerak garatzeko pertsona adituak eta espezializatuak kontratatzea beharrezkoa denean, beti ere diru-laguntzaren entitate onuradunak bere bazkideen edo bere organigramako kideen artean gaitasun edo disponibilitate egokia dutenik ez badu, behar bezala betetako aitorpena aurkeztuko da, deialdi honen IV. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

3.- Jarduerak Sestaoko udalerritik kanpo garatzen direnean, baina udalerrian erroldatuak direnen alde egiten direnean, erakunde eskatzaileak jardueraren hartzaile-kopurua adierazi beharko du eta Sestaoko udalerrian erroldatuak daudenen kopurua eta zerrenda nominala aurkeztu beharko da, Udalak diru-laguntzak arautzen dituen udal-ordenantzak 3.3. artikuluan aurrez ikusitakoa betetzen dela egiaztatzeko.

4.- Baldintza honetako 2. puntuko a) eta b) ataletan aipatutako dokumenturen bat jada alde zuzenetik Sestaoko Udalean entregatu bada, bost urte baino gehiago igaro ez badira eta aurkeztu zirenetik aldaketarik ez badute izan, pertsona edo erakunde eskatzailea berriz aurkezteaz salbuetsia egongo da. Hala eta guztiz ere, ustezko horietan pertsona edo erakunde eskatzaileak berriaz adierazi beharko du dokumentuen aurkezte-data eta zertarako aurkeztu ziren. Aldaketarik ez dutela izan adieraziko du.)

ZAZPIGARRENA. ESKAERAK ETA EPEAK.

1.- Eskabideak, agindutako dokumentazio guztiarekin batera, Sestaoko Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Aizpuru kaleko 1go zenbakian, astelehenetik larunbatera, goizeko 9:00etatik 14:00etara, alde batera utzi gabe 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Lege Jardunbideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 38.4 artikuluan aurrez ikusitako aurkezpen-bitartekoak, egiletsitako urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen arabera.

2.- Pertsona juridiko eskatzailearen ordezkariak duenak sinatuko du eskabidea.

3.- Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.- Epez kanpo aurkezten diren eskabideak gaitzetsi egingo dira, izapide gehiagorik egin gabe eta deialdiak aipatzen duen diru-laguntzen prozedurari dagokion ebazpenean hala adieraziko da.



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

5.- Eskabideak aurkezten direnean oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honek dituen baldintzak guztiak, baita Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko udal-araudian daudenak ere.

6.- Eskabideak behar bezala osatuak ez badaude, edo derrigorrezko dokumentazioa ez badute, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar laneguneko epean okerra zuzentzea edo derrigorrezko dokumentuak aurkeztea; hala egiten ez badu, eskaerari uko egiten diola adieraziko zaio. Uko egite hori berariaz aitortuko da deialdi honek aipatzen duen diru-laguntzak emateko prozedurari dagokion ebazpenean.

ZORTZIGARRENA. EBAZPENA.

1.-Eskabide guztiak jaso ondoren, Berdintasuna eta Garapenerako Landidetza Arloko Teknikari Andreak edo hau egon ezean funtzioak bere gain hartzen dituenak, txostena burutuko du. Txostenean deialdian parte hartu duten erakundeak aipatuko dira, diru-laguntza eskatzen duten jarduerak edo proiektuak eta erakundeek eta jarduerak diru-laguntza jasotzeko xedatutako baldintzak betetzen al dituzten zehaztuko da; azkenik, deialdiaren Oinarriak aplikatuz ematea dagokion diru-laguntza aipatuko da. Beharrezko ikusten badu, txostena bukatu baino lehen, dokumentazioa aztertu ondoren, berdintasuna eta garapenerako lankidetzaren arloko teknikariak eskabidea egiten duen entitatearekin aurrez aurreko edo telefono bidezko elkarrizketa izan dezake, horrela proiektuari buruzko informazioa zabaldu ahal izateko. Txosten hori ikusirik, Gizarte Ekintza eta Emakumezkoaren Ataleko Buruak edo hori izan ezean funtzioak onartzen dituenak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du.

2.-Behin-behineko ebazpen-proposamena egin ostean, Emakumea, Berdintasuna, Inmigrazioa eta Ez-Diskriminazioa Informazio Batzordeak Gizarte Ekintza, Adinekoak, Berdintasuna Eta Garapenerako Lankidetzaren Arloko Hirugarren Alkateordeari behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio. Proposamena aipatutako Saileko Atalburuak luzatutako txostenarekin bat etor daiteke ala ez. Nolanahi ere, arrazoitu egin beharko da eta deialdi honetan xedatutako baldintza eta irizpideekin bat etorri beharko du.

3.-Gizarte Ekintza, Adinekoak, Berdintasuna Eta Garapenerako Lankidetzaren Arloko Hirugarren Alkateordeak, Berdintasuna, Inmigrazioa eta Ez-Diskriminazioa Informazio Batzordeak egindako behin betiko ebazpen-proposamena ikusirik, prozedura ebatziko du behin betiko ebazpen-proposamenaren ildo beretik edo horretatik baztertuz. Nolanahi ere, azkeneko kasuan, arrazoitu egin beharko du eta ebazpena justifikatu deialdi honetan eta Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzan xedatutako irizpideak aplikatuz.

Prozeduraren ebazpenean eskatzaile bakoitzari emandako diru-laguntza adieraziko da, baita emateko baldintzak ere, hala nola diru-laguntza jaso duten jarduerak, ehunekoak eta diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak, jarduerak gauzatzeko epea, gauzatzea justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab. Halaber, ebazpenean azalduko dira gaitzetsitako eskabideak eta uko egindakoak, beren arrazoiekin.

4.-Diru-laguntza hauek emateko ebazpena deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean hartu beharko da.

5.- Diru-laguntzak eman edo gaitzesten dituen ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta kontra jar daitezkeen errekurtsoak adieraziko dira.

Ebazpena Sestaoko Udaleko iragarkien oholtzan izango da hilabete batez, deialdiaren diru-laguntzen prozeduraren ebazpenari buruzko laburpena eta ebazpena azaltzen den tokia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak 18.3. artikuluan aipatutako ustezkoetan, ez da beharrezkoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaleko iragarkien oholtzan azaltzen denean 1/1982 Lege Organikoak, maiatzaren 5ekoak, ohoreari, intimitate pertsonalari eta familiari nahiz irudiarri berari dagoen eskubidearen babes zibilarri buruzkoak, xedatutakoa errespetatuko da.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

6. Erakunde onuradunek emandako diru-laguntzak onartzen dituztela ulertuko da, hamar lanegunen buruan, diru-laguntzak ematen diren erabakiaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Sestaoko Udalari idatziz ez badiote adierazten diru-laguntzari uko egingo diotela.

7. Diru-laguntza jaso duten erakundeek Sestaoko Udalaren berariazko adostasuna eskatu beharko dute diru-laguntza jaso duten proiektuetan aldaketa esangarriak egiteko hasierak aurrez ikusitakoarekiko. Aldaketek diru-laguntza eman duen organoaren ebazpena izan beharko dute. Emandako diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatzen badira aldaketak onar daitezke.

BEDERATZIGARRENA. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.

Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira: lehenengo ordainketa (dirulaguntzaren % 75) diru-laguntzen ebazpenarekin batera aginduko da eta bigarren ordainketa (diru-laguntzaren gainerako % 25) erakunde onuradunak justifikazio-dokumentazioa aurkezten duenean. Aurkeztu beharreko dokumentazioa deialdi honek hamaikagarren Baldintzan xedatzen du.

Erakunde edo persona onuradunak justifikazioa aurkeztu eta Udalak onartzen duenean, gainerako diru-laguntza ordaintzea aginduko da. Bestela, jarduera edo proiektua garatzeko orduan gastuen gainean gehiegizko diru-sarrerak izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak itzuli behar duen zenbatekoa xedatuko da. Justifikazioa onartu eta gainerako diru-laguntzaren ordainketa xedatu edo itzultzea eskatzeko ebazpena egin baino lehen, Sail izapidegileak eta Udaleko kontu-hartzaileak txostenak egin beharko dituzte. Ebazpena diru-laguntza eman zuen organoak edo funtzio hori eskuordetzen duen udal-organoak egingo du.

HAMARGARRENA. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

1. Diru-laguntzen erakunde onuradunek hurrengo betebeharrak bete behar dituzte:

a) Deialdi honetan eta diru-laguntzak emateko udal-ebazpenean xedatuak dauden arauak zehatz-mehatz betetzea.

b) Diru-laguntza eman den helburura bideratzea.

c) Diru-laguntzaren jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen publiko edo pribatuak lortzea; diru-laguntza jaso duten jarduera edo proiektuak antolatu eta egiteko orduan edozein elementuri eragiten dion indarreko lege-araudia betetzea; beharrezkoak diren erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru-polizak sinatzea; eta, laburbilduz, diru-laguntza jaso duten jarduera edo proiektuak egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak onartzea. Udala edozein erantzukizunez salbuetsia geldituko da.

d) Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua hedatu edo argitaratzeko orduan, bitarteko, idazki eta ikus-entzunezko guztietan Sestaoko Udalaren laguntza izana berariaz adieraztea. Babes hau eta era berean jarduera bidez edo diruz lagundutako proiektuen bidez egindako edozein dokumentu, komunikatu edo informazioren eduki, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

Udalaren babesa derrigorrez agertu beharko da diru-laguntza emana dagoela adierazten den jakinarazpenaren ondoren hedatutako jardueretan.

e) Sestaoko Udalak jarduerak onartu beharko ditu eta diru-laguntza jaso duen jarduera edo proiektua egiteko informazio osagarria eskuratu beharko du, hala eskatuz gero.

f) Sestaoko Udalari jakinaraztea beste diru-laguntzak edo laguntza ekonomikoak lortu direla, beste edozein erakunde publiko edo pribatutik, Udalak diru-laguntza eman duen jarduera berdina egiteko.



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Jakinarazpena ezagutu bezain pronto egin beharko da eta diru-laguntza edo laguntza bezala lortutako zenbatekoa adieraziko da, baita erakunde emailea ere.

HAMAIKAGARRENA. JUSTIFIKAZIOA.

1. Diru-laguntza eman den jarduera edo proiektua amaitzen denean, erakunde onuradunak dokumentu-justifikazioa aurkeztu beharko du diru-laguntzaren jomuga zuzena izan dela ziurtatzeko.

2. Justifikazio bezala honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Egindako jardueren memoria zehatza, lortutako emaitzen ebaluazioarekin.

b) Jarduerak gauzatzearen ondorioz izandako diru-sarrera eta gastu guztien balantze ekonomiko zehatz eta osoa. Diru-sarrera eta gastu ekonomikoak adieraziko dira, jatorria eta jomuga zehaztuz, hurrenez hurren.

Jarduerak Sestaoko Udalaren diru-laguntzaz gain, erakunde onuradunaren funts propioekin edo beste diru-laguntzekin ala bitarteko ekonomikoekin finantzatu direnean, justifikazioan zehatz-mehatz adierazi beharko da zenbatekoa, jatorria eta funtsen aplikazioa diru-laguntza jaso duten jarduera edo proiektuetan.

c) Diru-laguntzaren zenbateko guztia osatu arte, jardueraren ondorioz izandako gastuen jatorrizko ordainagiriak.

Halaber, jarduera egiteko gainerako gastu guztiak justifikatzeko fotokopiak. Hala ere, gizarte-ekintza eta emakumezkoaren arloan jarduerak garatzen ibilbide luzea ziurtatuta daukaten erakundeak direnean, fakturazio-kopuru handia dutenean eta Sestaoko Udalak diruz lagundutako jardueraz gain, beste hainbat jarduera burutzen dituztenean, gainerako gastu guztiak justifikatzeko fotokopien orde, erakunde onuraduneari eskumen hori daukan pertsonak egindako ziurtagiri batek balio du, betiere, diruz lagundutako jardueren garapenari dagozkion gastu guztiei buruzkoak direnean. Salbuespen hau diru-laguntzen kitapenak onartzeko eskumena daukan organoak balioetsi beharko du.

Nolanahi ere, gastuen ziurtagiriak fakturak edo froga-balioa duten beste dokumentu batzuk izango dira; azkenekoak merkataritzaren lege-trafikoan baliozkoak badira.

d) Jarduera egiteko egin diren ikerketen, programen, argitalpenen, kartel iragarleen eta idatzizko dokumentazioaren nahiz dokumentazio grafikoaren ale bana. Horietan berariaz agertu beharko da Sestaoko Udalaren Arloak edo Zerbitzuak eskainitako babesa.

3. Ziurtagirik halabeharrez helburuak eta jarduerak betetzeko gastuei dagozkienak izan beharko dute, diru-laguntzaren eskaerari jarraiki. Ez dira onartuko xede desberdinak betetzeko ziurtagiriak.

4. Pertsona edo erakunde onuradunak jatorrizko justifikazio-dokumentuak gorde behar baditu, horren arrazoia idatziz adieraziko du aurkezten dituztenean dokumentu horien fotokopiekin batera, eta udal-zerbitzuek alderatu ondoren, jatorrizko dokumentuak Sestaoko Udalak zigilatuko ditu eta gastu horiek Udalaren diru-laguntza jaso dutela adieraziko da. Ondoren, pertsona edo erakunde onuradunari bueltatuko zaizkio.

5. Gastua egiaztatzen duen dokumentazioa justifikazio bezala onartzeko, 2015. urtean datatuta egongo da.

6. Pertsona edo erakunde onuradunak egindako jarduera azpikontratatuaren justifikazio-dokumentuak onartuko dira deialdi honetan xedatutako gehieneko zenbatekoetan.

7. Justifikazioak aurkezteko epea.



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

2015eko abenduaren 31 baino lehen, entitate onuradunek Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Emakumea Atalean entregatu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren ondorioz izandako gastu guzti-guztien faktura keta gainerakoa giriak (oinarri honen 2. puntuaren c) atalean ezarritakoaren arabera). Betebehar hau betetzen ez duen entitate onuradun orok galduko du bai lehendik jasota dituen edo, bestela, kobratzeko dituen diru-kopuruak jasotzeko eskubidea, lehendik kobratuta dituenak itzuli beharra izango duelarik. Adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharra betetzeak ez du, berez, diru-laguntza kobratzeko behin-betiko eskubiderik sortzen, Justifikazio hori behin-betikoz onartzera baldintzatuta egongo delarik.

2016ko otsailaren 1a baino lehen, entitate onuradunek Sestaoko Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte oinarri honen 2. puntuko a), b) eta d) ataletan adierazitako dokumentu guztiak.

HAMABIGARRENA. BESTELAKO BALDINTZAK

Lehenengoa.- Diru-laguntza itzuli, zigor-erregimenari eta beste edozein alderdiri dagokionez, deialdian aurrez ikusi ez bada, diru-laguntzak izapidetu eta emateko prozedura arautzen duen Sestaoko Udalaren Araudiak xedatutakoa aplikagarria izango da. Halaber, 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorrak, xedatutakoari erreparatuko zaio, aplikagarria den guztian.

Bigarrena.- Deialdi honen xede diren programak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak 2015. ekitaldiko aurrekontu-sailaren kargura emango dira eta hurrengo moduan kontsignatua dago: 2312.48105 "Emakumearen jarduerak egiteko diru-laguntzak" eta esleipenak muga bezala hamaika mila hirurehun eta hogeita hamar euro (11.330 euro) izango ditu.

Hirugarrena.- Deialdi honek aipatzen dituen diru-laguntzak dagokion ekitaldian betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatera mugatuak daude.



I. ERANSKINA
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOAN JARDUERAK
EGITEKO SESTAOKO UDALARI DIRU-LAGUNTZA EKONOMIKOA ESKATZEA.2015. URTEA

Erakunde eskatzailearen datuak

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK			
IZENA		FK:	
Sozietatearen egoitzaren helbidea Sestaon			
Jakinarazpen ofizialetarako erakunde eskatzailearen helbidea.			
Telefonoa		faxa	
Posta elektronikoaren helbidea:			
Eratze-data		Dagokion Erregistro Publikoko inskribapen-data:	
JARDUEREN ERANTZULE DEN PERTSONAREN DATUAK			
IZENA		Te lefonia	
Posta elektronikoaren helbidea:			
DIRU-LAGUNTZARA AURKEZTUTAKO JARDUEREN IZEN-ZERRENDA			
1.			
2.			
3.			
ESKABIDE HAU SINATZEN DUEN AHALDUNAREN DATUAK			
IZENA			
Entitatean duen kargua			

Diru-laguntzarako aurkeztutako jardueraren/ren datuak
Jarduera bakoitza azaltzen duen dokumentu bat aurkeztuko da:

JARDUERAREN DATUAK.	
Izena	



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

a	Azalpen		
Jarduerak bilatzen dituen helburuak			
1.			
2.			
3.			
4.			
Nori zuzendua*			
Egiteko-datak:		Egiteko tokiak:	
Espero diren emaitzak			
ERABILIKO DIREN BALIABIDEAK			
Giza-Baliabideak:			
Baliabide teknikoak			
BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK			

* Gutxi gorabeherako hartzaileen kopurua adieraziko da. Jarduerak Sestaoko udalerritik kanpo eginez gero, Sestaoko udalerrian erroldatuak dauden pertsona hartzaileen kopurua eta izen-zerrenda.

Jardueraren/ren gastu eta sarreraren aurrekontua:

JARDUERAREN GASTUEI DAGOKIEN AURREKONTUA.		
KONTZEPTUA	XEHETASUNAK	ZENB ATEKOA (Eurotan)
Zerbitzua kontratatzea.		
Alokairuak		



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Materiala		
Publizitate- eta zabalkunde-tresnak		
Aseguru polizak		
Bestelako gastuak		
GASTUAK GUZTIRA (Euro)		€ _____

JARDUERAREN DIRU-SARREREN AURREKONTUA		
KONTZEPTUA	XEHETASUNAK	ZENBATEKOA (Eurotan)
Entitatearen sarrerak edo bazkideen kuotak		
Jasotako bestelako diru-laguntza publiko edo pribatuak		
Bestelako sarrerak		
DIRU-SARRERAK GUZTIRA (Euro)		€ _____

JARDUERA EGITEKO SESTAOKO UDALARI ESKATZEN ZAION DIRU-LAGUNTZA EKONOMIKOA:	€ _____
---	---------

Eskabide honekin aurkezten den dokumentazioa

(Diru-laguntza hauen deialdiaren seigarren baldintzan eskatutako dokumentazio guztia zerrendatu eta eranstea. Dokumenturen bat aldeztatik Sestaoko Udalari entregatu zaion kasuan, bost urte baino gehiago igaro ez badira eta aurkeztu zenetik aldaketarik ez badu izan, pertsona edo erakunde eskatzailea berriz aurkezteaz salbuetsia dago. Hala eta guztiz ere, ustezko horietan pertsona edo erakunde eskatzaileak berriaz adierazi beharko du dokumentuen aurkezte-data eta zertarako aurkeztu ziren. Aldaketarik ez dutela izan adieraziko du.)

.....n, 2015ekoarenan

Iz.:



II. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA LORTZEKO ERAKUNDE ESKATZAILEAK DEBEKURIK EZ ADIERAZTEN DUEN AITORPENAREN EREDUA

..... jaun/andreak, NAN zenbakiarekin, erakundearen izenean (2014. urtean garapenerako lankidetzaren arloan jarduerak egiteko diru-laguntza ekonomikoen eskarian Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztutako dokumentazioak ziurtatzen duen bezala), AITORTZEN DU ARESTIAN AIPATUTAKO ERAKUNDEA Sestaoko Udalaren laguntzen izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduran murgilduta ez dagoela; era berean, 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak 13. artikuluan xedatutako debekurik ez duela; eta sexuarengatik diskriminazioa egitearen ondorioz administrazioak edo zigor-eremuak zigortuak ez dela izan, ezta diru-laguntzak jasotzeko deialdietara ez aurkezteko debekura zigortua ere, 4/2005 Euskal Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako denak ezarritakoaren arabera; eta azkenik, Sestaoko Udalari eskatzen dion diru-laguntzarekin jarduera garatzeko orduan irabazi-asmorik ez duela.

.....an, 2015ekoarenan.

Iz.:

III. ERANSKINA

HARTZEKODUNAREN FITXA-FICHA ACREEDOR ESKATZAILEAK BETE BEHARREKO DATUAK DATOS A RELLENAR POR EL TERCERO

ADI: Belztuta dauden atalak ATENCION: Los datos oscurecidos son derrigaorrezkoak dira, hauek bete gabe ez da obligatorios, no se aceptaran fichas sin que estos fitxarrik onartuko. sean rellenados

Diligentzia: Behean sinatu duenak zehaztutako datuen erantzunkizuna – hala datu orokorra nola bankukoena – hartu du. Datuek ordainketak zein kontu eta FINANTZA ERAKUNDEAN egin behar diren adierazten dute, eta horrenbestez, Sestaoko Udalak ez du inolako erantzunkizunik izango haietan gertatutako akats nahiz hutsegiteek eragindako ondorietan.

Diligencia: El abajo firmante se responsabiliza de los datos detallados, tanto generales como bancarios, que identifican la cuenta y la ENTIDAD FINANCIERA a través de las cuales se desean recibir los pagos que puedan corresponder, quedando el Ayuntamiento de Sestao exonerado de cualquier responsabilidad derivada de errores u omisiones en los mismos

IZEN DEITURAK /NOMBRE Y APELLIDOS _____

_____ NAN-IFK/DNI-CIF _____

HELBIDEA/DOMICILIO _____

UDALERRIA/POBLACION _____ P.K./C.P. _____

E-MAILA _____ TFNOA _____

TOKIA ETA DATA / LUGAR Y FECHA _____

**ESKATZAILEAREN SINADURA ETA ZIGILUA
FIRMA Y SELLO DEL TERCERO**



DATOS A RELLENAR POR EL BANCO
BANKU-ERAKUNDEAK BETE BEHARREKO DATUAK

Arestian izendatutako pertsona hurrengo banku-kontuaren titularra dela ziurtatzen dugu: Certificamos que la persona arriba referenciada es titular de la siguiente cuenta bancaria:

ERAKUNDEA/ENTIDAD BIC KODEA/CODIGO(8-11)
IBAN(24-34)

TOKIA ETA DATA / LUGAR Y FECHA

BANKU-ERAKUNDEAREN SINADURA ETA ZIGILUA
FIRMA Y SELLO DE LA ENTIDAD BANCARIA

Agiri hori lotu zehar zaio, kasuz kasu, honene kopia: Es imprescindible acompañar a este impreso, según proceda, copia de:

- NORTASUN AGIRI NAZIONALA (N.A.N.)	- DOCUMENTO NACIONAL DE IDENTIDAD (D.N.I.)
- IDENTIFIKAZIO FISKALEKO KODEAREN EGIAZTATZEKO AGIRIA (I.F.K.)	- TARJETA ACREDITATIVA DE NUMERO DE IDENTIFICACION FISCAL (N.I.F.)
- BIZILEKU BAIMENA	- PERMISO DE RESIDENCIA
- ATZERRITARRAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA (A.I.Z.) eta PASAPORTEA	- NUMERO DE IDENTIDAD DE EXTRANJERO (N.I.E.) y PASAPORTE



IV. ERANSKINA
ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BAZKIDEAK EZ IZAN ARREN PERTSONA ADITUAK ETA
ESPEZIALIZATUAK KONTRATATZEKO AITORPENAREN EREDUA

..... jaun/andreak, Nortasun Agiri Nazionalarekin, erakundearen izenean jardunez (emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan jarduerak garatzeko 2015. urteko diru-laguntzen deialdian parte hartzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztu den dokumentazioaren bidez egiaztatutako ordezkari), honakoa azaltzen du:

Lehenena.- Erakunde honek aipatu deialdian parte hartzeko aurkeztutako
..... jarduera/k garatzeko, beharrezkoa da jarduera hartan/haietan aditu eta espezializatu den/diren pertsonak kontratatzea, erakunde honek ez baitu lan hori era egokian burutzeko gaitasunik edo egiteko modurik duen kiderik .

Bigarrena.- Xede horretarako kontratatutako pertsonak ez dira erakundearen bazkideak, ezta boluntarioak ere.

Hirugarrena.- Pertsonak kontratatzen diren jardunaldiak/hitzaldiak/jarduera didaktikoak/aholkularitza proposatutako jardueraren barruan daude, baina ez dira ekintza bakarrak. Ildo horri jarraiki, bestelako alderdiak (hala nola ideia, jardueraren diseinua, antolaketa, hartzaile potentzialeari jakinaraztea, horiek hautatzea, jardueraren jarraipena, sortzen diren arazoak ebaztea eta azken ebaluazioa) erakundeak zuzenean, bazkideen bitartez, onartu eta garatutako zeregin eta funtzioak dira. Nolanahi ere, jardueraren gastuen aurrekontuan adierazi gabe dagoen kostu ekonomia sortzen dute eta erakundearen ekarpenak dira.

Hori guztia azaltzen da, diru-laguntzen deialdia arautzen duen laugarren oinarrian, 1. eta 2. atalean, aurrez ikusitakoaren arabera, Sestaoko Udalak erakundeak proposatutako jarduerak ontzat emateko

Sestaon,2015ekoarenan,

Iz.:

2.- Erabaki honen lehenengo puntuan onartutako deialdiak aipatzen dituen diru-laguntzak emateko hamaika mila hirurehun eta hogeita hamar euroko (11.330 euro) gastua onartzea.

3.- Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko izapideak egitea eta Udaleko Kontu-hartzaileari jakinaraztea”.

Sestaon, 2015eko martxoaren 25ean
HIRUGARREN ALKATEORDEA, GIZARTE EKINTZA, ADINEKOAK, BERDINTASUNA ETA
GARAPENERAKO LANKIDETZA ARLOKO ORDEZKARIA,

Iz.: Florentina Núñez López



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)